

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2024IPLE0002

Eguna: 2024-02-27

Ordua: 19:00 – 19:55

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

- 1.- 2024ko urtalirraren 30eko akta onartzea.
- 2.- Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia KALD-0014. Berri ematea.
- 3.-2023ko udal aurrekontuaren likidazioa. Berri ematea.
- 4.-Kreditu aldaketa: kreditu txertaketa KALD-0001. Berri ematea.
- 5.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria KALD-0002.
- 6.- Soldata igoera 2023.
- 7- Astigarragako udal eraikin, bulego eta instalazioak, eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzua.
- 8 - Landa-lurreko bideen udal-inbentarioaren aldaketa zehatza: 45. Herri-bidearen fitxa.
- 9.- Landa-eremuko biztanle-entitate bereziak.
- 10.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "2009ko irailetik 2020ko ekainera bitarteko aldaketetara egokitutako Testu Bategina"



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

11.- Udalerriko anbulatorio berria kokatzeko HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko Astigarragako HAPOn testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren espedientea.

12.-2024. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak.

13.-Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

14.-Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1.. 2024ko urtarrilaren 30eko akta onartzea.

Naroa, Joseba, Olaia eta Patxi zinegotziak abstenitu egin dira aurreko bileran ez zirelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2. Kreditu aldaketa: kreditu transferentzia KALD-0014. Berri ematea.

Alkateak 283/2023 eta 285/2023 Dekretuen berri eman du, aurrekontuko kredituak, kreditu-transferentziaren modalitatean, aldatzeko espedientea onartzen dutenak, eta kreditu aldaketaren nondik norakoak azaldu ditu.

3. 2023ko udal aurrekontuaren likidazioa. Berri ematea.

Alkateak 292/2023 Dekretuaren berri eman du, 2023ko udal-aurrekontuaren likidazioa onartzen duena, eta likidazioaren nondik norakoak azaldu ditu.

4. Kreditu aldaketa: kreditu txertaketa KALD-0001. Berri ematea.

2023ko ekitaldiko kredituak txertatzeari buruzko alkatearen 289/2024 eta 290/2024 Dekretuen berri eman du alkateak, eta horien nondik norakoak azaldu ditu.

5.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria KALD-0002.

Alkateak kreditu aldaketaren zergatia eta nondik norakoak azaldu ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

***“Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	116.750,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	46.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	1.500.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		1.663.250,00



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
4 (GASTUAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	(-)4.000,00
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.659.250,00
GUZTIRA		1.663.250,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

6.- Soldata igoera 2023.

Alkateak igoeraren nondik norakoak azaldu ditu, eta gaia orain onartzearen arrazoiak eman ditu. Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

“Atal bakarra.- 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2. B) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea. Igoera hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

7.- Astigarragako udal eraikin, bulego eta instalazioak, eta ikastetxeak garbitzeko zerbitzua.

Alkateak azaldu ditu lehiaketa berria egin behar izatearen arrazoiak (lan-hitzarmen berri bat sartzeak eta gero eta instalazio gehiago garbitu behar izateak, ez ematea aukera oreka ekonomikoa eusteko). Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

“Lehena.- Zerbitzu-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu teknikoak eta administratiboak onartzea.

Bigarrena.- Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea, beti ere kreditu aldaketa espedientea, kreditu gehigarria KALD-0002, behin betirako onartzearen baldintzarekin.”

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

8.-Landa-lurreko bideen udal-inbentarioaren aldaketa zehatza: 45. Herri-bidearen fitxa.

Alkateak azaldu du bide hau herri-bidetzat hartzeko ikerketa espedientea izapidetu zela, eta berreskuratzeko espediente bat ere izapidetu dela hori irekitzeko, eta orain dagokiola herri-bidearen inbentarioko fitxa onartzea. Ondoren ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

“Lehena.- Onartzea Astigarragako landalurreko bideen udal-inbentario 45. herribidearen fitxa, 4. herri-

bidetik (Arraspine eta Bustieta-berri baserrien erditik) 12. herri-bidera (Matrakane baserri aldera) doan bidearena.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

9.- Landa-eremuko biztanle-entitate bereziak.

Alkateak aldaketa izapidetu izanaren arrazoak azaldu ondoren, obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*“**Lehena**- Aldatzea I. eranskina – biztanle-entitate bakoitza osatzen duen eremua jasotzen duen plano –, honako aldaketa hau sartzeko:*

1. *Santiгомendiko biztanle-entitate berezian, Astondo bideko 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 8ko etxebizitzak*

***Bigarrena**- Aldatzea II. eranskina – biztanle-entitate bakoitza osatzen duten eraikinen zerrenda –, honako aldaketa hauek sartzeko:*

- *Mendiaundi biztanle-entitate berezian, etxebizitza hauek sartzeko: Galtzaur 22, 24, 26, 28, 30, 32, 34, 36, 38 eta 40, eta Portutxo 2 eta 10.*
- *Landarbaso bidea 86ko etxebizitza Perurenako biztanle-entitate berezitik atera, eta Santiгомendikoan sartu.*
- *Sagardotegi zeharra 1, Oiarbidea bidea 12 eta 14ko etxebizitzak Santiгомendi biztanle-berezitik atera, eta Oialumekoan sartu.*

***Hirugarrena**- Onartzea landa-eremuko biztanle-entitate berezien eranskin berriak (I. eranskina, biztanle-entitate bakoitza osatzen duen eremua jasotzen duen plano, eta II. eranskina, biztanle-entitate bakoitza osatzen duten eraikinen zerrenda)*

***Laugarrena**- Udal erroldan eta gainontzeko udal espedienteetan dagozkion aldaketak egitea.*

***Bosgarrena**- Akordio honen berri ematea Behemendi Donostialdea-Bidasoako Landa Garapeneko Elkarteari, INEri eta Eustat-i, eta eranskin berrien ale bana bidaltzea.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta adierazpena aho batez onartu da.

10.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "2009ko irailetik 2020ko ekainera bitarteko aldaketetara egokitutako Testu Bategina"

Alkateak azaldu ondoren udala legez behartuta dagoela HAPOn bost aldaketa zehatz izapidetzen direnean testu bategina egitera; hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*“**Lehena**- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren "2009ko irailetik 2020ko ekainera bitarteko aldaketetara egokitutako Testu Bategina" onartzea.*

***Bigarrena**- Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordetzeko.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta adierazpena aho batez onartu da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

11.- Udalerriko anbulatorio berria kokatzeko HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko Astigarragako HAPOren testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren espedientea.

Alkateak hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

“Lehenengoa.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren espedienteari hasiera ematea, HJE 9 "Ergobia ibilbidea" eremuan partzela bat ekipamendu-sistema orokor gisa kalifikatzeko, udalerriko anbulatorio berria kokatzeko.

Bigarrena.- Astigarragako HAPOren testu bateginaren 7. aldaketa puntualaren herritarrek parte hartzeko programa onartzea, erabaki honekin batera doana eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian (www.astigarraga.eus) argitaratuko da.

Hirugarrena.- Informazioa eskatzea babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natura-ingurunearen gaineko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko organoei, 2/2006 Legearen 90.1 eta 2 artikulua betez, aldaketaren eraginpeko lurzatiaren kokapenaren plano bat erantsita.”

Maria zinegotziak idazketaren kostuari buruz galdetu du, eta erantzun zaionean 7.000 euro ingurukoa dela, komentatu du aurrekontuaren onarpenerako esan zela lursaila udalarena zela eta ez zegoela kosturik Udalarentzat.

Alkateak erantzun dio, konfunditzen ez bada, EAJk aurkeztutako aurrekontu-zuzenketa lurra erosteko zela, eta horretarako ez dela dirurik behar, baina lagapenak kostu ekonomikoren bat izango duela, besteak beste, lehen esan bezala, urbanizazio-lan txikiren bat egin beharko direlako.

Oiaia zinegotziak aurreratu du proposamenarekin ados dagoela, baina galdetu du ea saskibaloiko-kantxa beste lekuren batean jarriko den, eta alkateak azaldu dio egungo kantxak bere horretan mantenduko direla, galduko dena izango dela frontoi txikia, asmoa baita 500 m2 ematea, bi solairu eta sotoa eraikitzeko.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta adierazpena aho batez onartu da.

12.- 2024. urterako autotaxi zerbitzuaren tarifak.

Alkateak azadu du araubide bereziko eremua sortu nahi dela, Oarsoaldea, Buruntzaldea eta Donostiako taxi zerbitzuekin, baina horretarako ezinbestekoa dela taxi-tarifa berdinak aplikatzea. Ondoren, obrak eta zerbitzuak batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

“Lehena.- 2024. urterako autotaxi-zerbitzuaren tarifei buruzko 2023ko urriaren 31ko osoko bilkuraren erabakia indarrak gabe uztea.

Bigarrena.- 2024. urterako autotaxi-zerbitzuaren tarifa hauek onartzea:

2024. URTERAKO TARIFA PRPOSAMENA HIRI BARRURAKO (Eurotan adierazita)								
TARIFA 1*			TARIFA 2**			TARIFA 5***		
Gutxieneko tarifa	Egindako Kilometroa	Itxarote ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako Kilometroa	Itxarote ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako Kilometroa	Itxarote ordua
5,964693	0,837677	24,320055	6,91065	1,299642	32,426738	6,925205	1,345130	33,561597



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Gutxieneko tarifak 1,5 km.ko ibilbidea edo bost minutuko itxaronaldia barne hartzen du.

() Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.*

*(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Era berean, II. Tarifa 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da igandeetan eta Autonomia Erokidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan, Astigarragaren kasuan Uztailaren 26an, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.*

*(***) Tarifa hau ostiral, larunbat eta jai-bezperetako 22:00etatik larunbat, igande eta jaiegunetako 07:00etara aplikatuko da.”*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta adierazpena aho batez onartu da.

13.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

Alkateak azaldu du egin berri den bozeramaile batzordean erabaki dela adierazpen instituzionalaren onarpena mahai gainean uztea, testu bateratu eta adostu bat lantzeko. Gaineratu du bere taldeak adierazpen proposamena garaiz eta denborarekin aurkeztu zutela, baina oposizioak azken unean egin duela.

Jarraian, bozkatzera ekin zaio, eta aho batez erabaki da adierazpen instituzionalaren onarpena mahai gainean uztea.

14.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Donostiako bizikletak

Herritar batek galdetu du ea zergatik ez den iristen Donostiako alokairuko bizikleta-sistema Astigarragara.

Alkateak azaldu dio aspaldi daramatzatela horretan lanean, udalak gaia teknikoki eta juridikoki aztertuta duela eta Donostiari proposamen zehatza egin zaiola, horretarako sistemak bateragarriak izan behar dutelako (bizikleta, geltoki mota, eta bizikleten berbanaketarako zerbitzu-enpresa berdina). Baina Donostiako Udalaren baitza gabe ezin dela aurrera egin.

Gaineratu du gaia aztertzeko hitzarmen-protokoloa onartu berri duela Donostiako Udalak, eta Andoni zinegotziak argitu du, Astigarragakoak dokumentu hori 2023ko maiatzetik onartuta duela.

Bukatzeko alkateak adierazi du ulertzen duela Donostiako Udalak gaia ondo aztertu nahi izatea, orain Astigarragak eskutu duen bezala, gero beste udalerrri mugakideren batek ere eskatu dezaketelako. Baina horrela ere egin daitekeen zerbait dela, Bartzelonan – esaterako – egin dela eta handik hartu zutela ideia.

b.- Taxilariaren aparkalekua Ergobian

Herritar berak galdetu du Udalak taxi-gidariari emandako baimenaren inguruan, lursail publikoan bi mugarri jartzeko eta aparkaleku bat egitekoari buruzkoa

Andoni zinegotziak azaldu dio Udalak ez ziola inolako baimenik eman, lur pribatuetan ezarri zela, baina aparkatzeko baimenik ez zuenez, kenduarazi dela. Eta alkateak gaineratu du eremua konpondu egin dela inor ez aparkatzeko.

c.- **Ergobiako parke berria.**

Herritar berak kritikatu du parke bat eraiki izana, zulo beltz gisa kalifikatu duena eta herritar guztientzat irisgarria ez dena.

Alkateak azaldu dio bizilagunek eskatuta egin dela, eta asmoa zela eremu hori txukuntzea, lehen oso zikina eta utzia zegoelako. Eta gaineratu du oraingoz ez direla arazorik egon, baina egonez gero, egoera aztertuko dela.

Herritarrak erreplikatu dio beraiekin kontsultatu gabe egin dela, eta ulertezina dela irteerarik ez duen parke bat eraikitzea. Eta alkateak eta Andoni zinegotziak erantzun diote inguruan bizi direnekin hitz egin dela, eta ez dagoela haien kexarik.

d.- **Aparkaleku mugatuak**

Herritar berak aparkaleku mugatuen inguruan galdetu du, hain zuzen, jakin nahi zuen hori jarri izanen kostua eta helburua.

Azaldu zaio horiek jartzeko erabakia bi legealdi lehenago hartu zela, EAJ-PnV gobernatu zuenean. Gainera, Andoni zinegotziak aipatu du kostua ez zela oso handia izan, baina ez dakiela zer helbururekin jarri zen, eta hori udal talde horri galdetu beharko diola

Maria zinegotziak erantzun dio orduan bera ez zela Astigarragako zinegotzia, eta ez dakizkiela arrazoiak eta helburuak, baina galdetu eta esango diola.

Herritarrak salatu du ez direla erabiltzen, dirua horretan gastatzea eta bere negoziaren aurrean, berriz, ez margotzea marra horirik, eta horrek dakarrela edonor aparkatu ahal izatea eta udaltzainek ez edukitzea aukera hori saihesteko.

Alkateak emandako xehetasunak eskertu dizkio, komentatu dio aurreko udal osoko bilkuran gaiaren inguruan hitz egin zuenean, ez zela gaia argi gelditu, baina aztertuko dela eta kontuan hartuko dela bideen margoketa lanen zerrendan.

Horren harira, eta horrekin zerikusirik eduki gabe, herritarrak salatu du gobernu-taldeak solairuarten gaiari heltzea, eta ez erkidego-lurretako arazoei, eta azaldu zaionean lehenengo udal-eskumenekoa dela, baina ez bigarrena, herritarrak adierazi du industrialdean solairuarte bat baino gehiago dagoela eta ez dela beti berdin jarduten. Eta alkateak eta Andoni zinegotziak azaldu diotenean horietako asko legeztatuta daudela, herritarrak leporatu die beraiek nahi dutenak legeztatzen dituztela.

Andoni zinegotziak azaldu dio beti dagoela aukera udala salatzeko gaizki jokatzen badu, herritarrak kritikatu duena, erraztat hartzen baitu salaketaz hitz egitea diru publikoarekin ordaintzen denean. Eta Naroa zinegotziak herritarri azaldu dio gaizki ulertu bat egon dela, esan nahi zena ez zelako epaitegietara jotzea, salaketa udalean ere jarri daitekeelako.

Bestetik alkateak azaldu dio baimenik gabeko solairuarteak daudela jakinez gero, hori salatu dezakeela eta udalak neurriak hartuko dituela. Baina herritarrak adierazi du hori ez dela bere lana, aski dela salaketa hori udal osoko bilkuran egitea, eta udal-idazkaria ere hor dagoela. Eta azaldu zaio, ulertuko duenez herrian 4 industrialde daudela eta 600 bat enpresa, eta berak osoko bilkuran emandako datuekin ezin dela jakin zein enpresetaz edo egoerataz ari den.

Herritarrak jarraitu du adierazten udalak ez dituela denak berdin tratatzen, eta alkateak amaitutzat eman du eztabaida.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

e.- Sagardotegietako autobusa.

Herritar berak galdetu du zerbitzu horren kostua eta nork ordaintzen duen. Alkateak adierazi dio ez dela zerbitzu publiko bat baina herritarrak zerbitzu hori zegoela erantzun du eta alkateak eta Andoni zinegotziak argitu diote EAJ-PNVk gobernatzen zuenean jarri zen zerbitzua izan zela, baina beraiak kendu egin zutela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2024ko otsailaren 27an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkari